



Lizasok eta Lapazaranek irabazi dute sega desafio «parekatuan»

ZIZURKIL ▶ Favorito ez izan arren, 141 kilotako aldea atera zieten Ormaetxeari eta Goikoetxeari

ZAILTASUNAK ▶ Antolatzaileen esanetan, «zelaiak oso lokaztuta zeuden eta arazoak izan dituzte» ▶ 6

TOLOSA ▶

Emakumea pilotari Txapelketa martxan

Atzo jokatu zituzten lehen partidak Beotibarren ▶ 5

AMEZKETA ▶



Ugarten, ume bat zaldian. E.E.

Gaztetxoak protagonista Ugarteko jaietan

Gaur ere egitarau oparoa antolatu dute ugartetarrek ▶ 4-5



Juan Joxe Lizaso lanean sega desafioaren une batean, atzean Jon Lapazaran duela; lehia «estuaren» ostean haiek izan ziren garaile. N. GARZIA

IRUDI ZAHARRA... ▶



1953ko urrian uholdeak izan ziren Tolosan

Erredakzioa ▶ Egun Tolosako hainbat lekuk azaltzen digute duela 54 urte, urrian hain zuzen, Tolosan izandako uholdeak. Honen adibide da Plaza Berrira dagoen sarbideetako bat, Rondilla kaletik

dagoen tunela, hain zuzen. Beheko irudian azaltzen da Rondilla kalearen ikuspegia. Zailagoa izango da, ziurrenik, imajinatzea zer une bizi zituzten garaiko tolosarrek. JESUS ELOSEGUI 1907/1979

DATUA ▶

12

Urte. Igaro dira dagoeneko Abraham Olano bixirindulari anoetarrek Munduko Txapelketan zilarrezko domina lortu zuenetik, 1995. urteko urrian, hain zuzen ere. Eskualdea goi mailako kirolarien harrobia da, baita bixirindularitza ere; horien adibide Josu Agirre da, datorren denboraldia Euskaltel-Euskadi taldearekin ariko baita tolosarra.

ESANA ▶



BARBARA GOENAGA
AKTOREA

«Lan honetan lurralde muga gutxi daude, proiektu interesgarriak mundu osoan zehar baitaude»

«Itsasoa, familia, lagunak, janaria,... botatzen ditut faltan, baina nahiko etortzen naiz Madrildik»

AZOKA ▶

Salmenta eritmo apala eguraldi txarra dela eta

Hala ere, eskaintzak gora egin zuten; berrikuntzen artean, mizpiradia eta pikuak

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka lasaia suertatu zen Tolosan. Eguraldi kaskarrak ez zuten asko lagundu erosleei bere bisita egiteko garaian, eta salmenta eritmoa apal xamarra izan zen.

Eskaintza ordea gora egin zuen atzo ere. Berrikuntzen artean aurtengo lehenengo mizpiradiak eta pikuak gehitu ziren zerrendara, eta hauekin, nikaloak perretxiko eskaintzan.

Berdura plazan ere izan ziren produktu berriak. Aurtengo lehenengo ziklamenak eta azaleak saldu ziren atzo azokan, eta hauekin eta dirudienez, datzoen asteetan beste asko azalduko dira.

AZOKA ▶

Berdura plaza	merk.	gares.
Landareak		
Begonia	1,20	-
ziklamena	2,20	5,00
Xarbota	4,00	6,00
Gineako Alegria	4,00	-
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktuak

Perretxikoak		
Onddoa	22,00	30,00
ziza horia	15,00	-
nikalaoa	20,00	-
Gibelurdina	15,00	20,00

Fruta		
Gaztaina	3,00	
Errezil sagarra	1,50	
Pikua	2,00	
Udarea	1,00	
Matxakana	6,00	
Urta	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak		
Babarrun zuria	6,00	8,00
Ibarrako piparrak	4,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	4,00
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Lekak	3,50	4,50
Kalabaza	1,50	3,00

Besteak		
Ogi Biologikoa (900)	3,20	-
Artisau Ogia	2,80	3,70
Arrautzak	1,10	2,40
Ardigazta	14,00	18,00

ZIZURKIL ▶ SEGA

Jon Lapazaranek eta Juan Joxe Lizasok irabazi dute desafioa

Antolatzaileek lehia estua izan zela azaldu dute, eta irabazleek 141 kilotako aldea atera zioten beste bikoteari



Talde lana. Talde lana ezinbestekoa da sega apustu eta norgehiagoketan. Atzo, Jon Lapazaranek eta Juan Joxe Lizasok 4.855,5 kilo moztu zituzten eta Ormaetxeak eta Goikoetxeak, 4.714,5 kilo. N. GARZIA



Berdeak. Andoni Goikoetxea eta Jexux Mari Ormaetxea gogor saiatu ziren San Melinen. N. G.



Gorriak. Lapazaran eta Lizaso lehenengoak izan ziren atzo eta 141 kilotako aldea lortu zuten. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Jon Lapazaranek eta Juan joxe Lizasok irabazi zuten atzo Andoni Goikoetxea eta Jexux Mari Ormaetxearen aurka egindako sega desafioa Zizurkil Golan. Lehenengo bikoteak 4.855,5 kilo moztu zituen eta bigarrenak, berriz, 4.712,5.

Antolatzaileek azaldu duteenez, lehia oso estua izan zen. «Zelaia hagitz lokaztuta eta bustita zeuden, eta horrek gauzak zaildu egiten ditu. Lurraren kalitatea kontutan hartuta, lehia oso justua izan da». Antolatzaileek, gainera, segalarien jarrera azpimarratu dute. «Erabat entregatuta aritu dira».

Jende ugari bildu zen atzo Zizurkil Goiko elizaren ondoan dagoen San Melin zelaian. norgehiagoka 17:00etan hastekoa zen arren, azkenean atzeratu egin zen eta 17:30ean hasi zen. Aldez aurretik prestatutako zelai guztiak erabili zituzten azkenean, hirurak, izan ere, desafioa hasi baino lehen oraindik ez zekiten zenbat erabiliko zituzten eta badaezpada hiru prestatu zituzten. Aldez aurretik aurreikusia zegoen bezala, txanda librean aritu ziren, bikote bakoitzak erabaki zuen beraien arteko txandak nola egin. Antolatzaileen arabera ez zen jende gehiegi bildu. «sega apustuak jarraitzen dituen ohiko jendea bildu zen».

Segalari bakoitzak bi sega eraman zituen eta bikote bakoitzak zorrotzaile eta laguntzaile bana izan zituen. Kilo gehien moztu zuenak irabazi zuen lehia.

Maila altua

Epaile lanetan Gipuzkoako herri kirol federazioak aritu zen, eta jaialdia ESAITek (Euskal Selekzioen Aldeko Iritzi Taldeak) babestu zuen.

Atzoko desafioan parte hartu zuten segalariak maila paregabea dute: lau segalari hauek hiru Euskal Herriko aurtengo txapelketaren finalean izan ziren: Jon Lapazaranek irabazi egin zuen, Jexux Mari Ormaetxea 2.0 gelditu zen eta Andoni Goikoetxea laugarren.

EKONOMIA ▶

Teknologia sartzeko laguntzak

Enpresetan teknologia sartzeko laguntzak emango ditu Nafarroako Gobernuak. Helburua, micropymes-en arloan teknologiaren erabilera bultzatzea da, hau da, enpresetan teknologia informatikoa sartzeko laguntzak eskaintzea. Enpresa bakoitzak, BEZ-a kendu ondoren, 6.000 eurotako laguntza jaso ahaliko du. Eskaera egiteko epea hilaren 30a arte egongo da zabalik, Nafarroako Merkataritza-ganberan.

BEDAIO ▶

Hilaren 20ean herria ezagutzeko aukera

Artubi Kultur Elkarteak Bedaio ezagutzeko aukera eskaintzen jarraitzen du ekitaldiz beteriko egitarauaren bitartez. Hilaren 20ean, 20:00etan toka txapelketa jokatuko da. 21:00etan berriz, «garaia eskatzen duen bezala», ardikiaren inguruan afaria eingo dute, mondejuak eta gisadua nagusi izango direlarik. Azaroan eta abenduan zehar ekitaldi gehiago egingo dituzte.

IRURA ▶

«Atxiloketak salatze» kale-erasoa

Ostiral gauean Irurako telefono-kabina bati egindako sabotajea bere gain hartu dute ustezko erasotzaileek TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAZA egindako dei batean. Erredakziora egindako dei honen arabera, «ostegun gauean egindako atxiloketak salatze» eta PSOEren gobernuaren gerra estrategia salatze» egin zuten erasoa.

urteurrena ▶

I. urteurrena Migel Maiz Etxabe

Urte honetan zuk konejuekin hasitako lanari ezin izan diogu eutsi, baina zure baratzak fruituak ematen jarraituko du.

MAIZTAR FAMILIA

Gaur meza 11:15ean Ikaztegietak San Lorenzo elizan.

IKAZTEGIETA, 2007ko urriaren 7a



HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ALEGIA ▶ GIZARTEA



Arantxa Iturbek irrati esataria, Miramonen, laster lantoki berria izango duten gelan. GARI GARIALDE / ARGAZKI PRESS

Kontu jalea

Arantxa Iturbek 'Arratsaldekoa' saioa aurkezten du astelehenetik ostiralera Euskadi Irratian; kazetariak argi du «gustuko ibilbidea» aukeratu duela

IDOIA ETXEBERRIA (Berria)

Kontu jalea da Arantxa Iturbek alegiarra. Umetak gainera. Bere amak behintzat hala dio: entzuten egoten zela beti, isilik eta serio arraio. Orain ere entzule fina da, baina «hizlaria eta hitzuna» ere bada, Nekane Peñagarikano lankide eta lagunaren ustez: «Euskal irratiagintzako alma mater bat da». Iturbek —aldamenean baitago— lotsatu egin da hitz horiek entzutean: «Alma mater? Faborez!». Euskadi irrati erredakzioan barreak irratiazen murmurioarekin eta telefono hotsekin nahastu dira.

«Oraintxe gaude lasai». *Arratsaldekoa* irratsaioa bukatu berri dute kazetari eta idazleak. Lehen egitekoa: zigarroa erretzea, kanpora irtenda. Tabakoa eta kafea ezin utzizko bizioak dituelako Iturbek. Txokolatea ere bai. «Neurrigabe gusatzaten zait! Mizkina naiz oso jaten; apetitu txarrekoa». Eta lana. Lana ere bizioa da haren tzat: «Ez dut inoiz deskonektatzen. Etxean pentsatzen aritzen

naiz bihar zer egin daitekeen, entzuten edo irakurtzen... beti lanaren inguruan. Alde txarre-na hori da: ikustea 24 ordu ez, bizitza osoko dedikazioa dela!». Ama, emazte eta etxeko-andre lanen kaltean. «Astelehena iritsi delako penaz egoten dira asko. Ni ez. Benetan diot. Disfrutatut egiten dut lanean».

Argi dauka gustuko ibilbidea hartu duela. Kontatzeko zaletasuna txikitat du. Irudimena, jakinmina. Antzezlanak asmatzen zituen, etxeko ganbaran, lagunekin. Sei urterekin irabazi zuen lehen ipuin lehiaketa. «Uste dut ordurako ziur nengoela idazle izan behar nuela». Horregatik ikasi zuen Kazetaritza, idatzi nahi zuelako. Eta irratiarekin egin zuen topo: «Hura ere kontatzea zen, baina idatziz beharrean ahotsez. Pertsona bati historia kontaraztea, bozgorailu batekin. Formula zoragarria iruditut zitzaidan. Eta ahaztu zitzaidan pixka bat literatura idazteko asmoa».

Baina ez betiko. Denborarekin, ipuinak idazten hasi zen. «Oso inpulsiboa naiz». Bulkadaz jokatzeko du: hasi eta buka.

Horregatik da haren estiloa «zehatza, azkarra, zuzena eta laburra». Bizia. Amatasunaz idatzi zuen liburuak jende dezente aztoratu zuen; orduetik, sarri entzun behar izan ditu bere haurdunaldi txarraren gaineko komentarioak. Hamar urte igaro arren: «Ze emakumeek umeak izaten jarraitzen dute! Gaizki pasatu nuen, eta kristoren terapia izan zen idaztea. Baina ez nituzke ezergatik aldatuko nire semea eta egoe-

ra! Txoratzten nago nire umearekin».

Garrantzitsuena

Bizitzan inportanteena zer den galdetuta, barrez hasi da: «Galdetarak egitea hain da polita eta erantzutea hain da zaila! Esker-erak eman beharko genizkieke gure programatik pasatu diren guztiei!». Baina aurkitu du erantzuna, Joxean Artze poetak elkarrizketa batean esan ziona bere eginez: «Esan zuen inportanteena nork bere burua ezagutu eta onartzea dela. Non zauden eta zertarako, muga horiek ezagutzen joatea. Eta gero, ahalik eta zorioitsuena bizitzan saiatzea! Eta ahalik eta min gutxiena eragitea inguruan». Arantxa Iturbek «gauza txikiek» egiten dute zorioitsu: irakurri, idatzi, lagunekin kafea hartu... «Lagunek egiten naute zorioitsu, maite dudak jendeak».

«Harreman txarrekin loa galarrastzen didate». Giza harremanak dira haren esparrua, hala kazetaritzan nola literaturan. «Hori da bizitzaren oinarria!

ARANTXA ITURBE IDAZLEA ETA KAZETARIA

«Sei urterekin irabazi nuen nire lehen ipuin lehiaketa; ordurako uste dut ziur nengoela idazle izan behar nuela»

«Bizitzan inportanteena nork bere burua ezagutu eta onartzea da; non zauden eta zertarako, muga horiek ezagutzea»

PRINTZAK ▶

1964. Alegian jaio zen.
1982. Iruñera joan zen kazetaritza ikastera.
1985. Euskadi Irratian hasi zen lanean.
1992. Lehen ipuin liburua idatzi zuen.
1997. Ama izan zen.
2007. Rikardo Arregi kazetaritza saria jaso du, bigarren aldiz.



Harremanik gabe, zer bizimodu?». Hori bai, ez du bidaiatzea atsegin: «Iruditzen zait jende askok nahasten duela urrutira joatea jendea ezagutzearekin. Oso gertuan jende asko eta oso interesgarria ezagut daiteke». Gela barrutik mugitu gabe bidaiatzen du: «Liburu on batekin sekulako bidaiak egin zenezake. Besteen bidaiak entzuten ere bai; nahikoa dut horrekin, ez daukat eltxo baten ziztada sentitu beharrik. Eroso sentitzen naiz metro koadro gutxitan; ez naiz preso sentitzen».

Saiatzen ari da igeri egitea eta paseatzea plazer bihurtzen, baina ez dute betetzen erabat. Irratia belarrarian duela paseatzen da, nola ez. Lotarako ere, irratiak: «Asko maite ez dudakateren bat jaritzen dut, kirol saio bat edo; lo hartzeko modu bakarra da!». Barre errazekoa da Iturbek; eta Peñagarikanoren arabera, lagun ona: «Beti hortxe dago Esker onekoa da, eta parean daukana ulertzen daki. Eta zerbait txarra... bel-durtia dela, eta hipokondriako samarra! Beti zer txar etorriko!».

Argazkiaren unea: laster lantoki izango duten gela gris eta hutsean. Peñagarikanok bizkor ekarri du mikroa, atrezzo lanak eginez: «Aran, jar ezan kablea lepoan!». Barre egin dute. Hei batean, horregatik du hain maitea Iturbek bere lanbidea. «Lagun arteko lana da. 20 urte daramatzagu elkarrekin. Hori luxua da, pribilegioa».

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko urriaren 7a, igandea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzena

16

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(balantzak argitzeako, harpidetuen egiteko...)

902 82 02 01

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Larraitz. Esteban Nietoren heriotzaren 8. urtemuga gogoan izango dute Larraitzen 12:00etan egingo duten ekitaldian.

Ugarte. Ugarteko jaiak (Amezketak): meza nagusia 11:30ean; txakolin probaketa; Laja eta Landakanda trikitalariak; harri-jasotzaileak (Izeta II.a, Goenabxo II.a eta Joseba Ostolaza) 18:00etan; Ingurutxo eta trikitalariak.

Vilabona. Biltoki jubilatutako elkarrekin irteera antolatuta du urriaren 18an Arantzazura. Izen-ematea, elkartean 23 eurotan.

ZINEMA

Tolosa. *Las tortugas Ninja* haurrentzako filma 17:00etan eta *El ultimatum de Bourne* filma 19:30ean eta 22:30ean emango dituzte Leidor aretoan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Paisaiak lantzen dituen Rufino De Toro margolariaren lanak daude jubilatuen tabernan. Asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan zehar daude.

Belauntza. Gaur arte, 17:00etatik 20:00etara zuhaitzetako ondoei buruz argazki erakusketak ikusgai jarri dute Belauntzako Kultur Etxean. Joxe Manuel Lekuona Aranzadiko Zientzia elkarteko mikologoak osatu du erakusketak; aditu nahiz zaletuei zuzenduta dago.

Tolosa. Aitor Tejeriaren margolanak ikus daitezke Sorron marko dendan (Korreo kalea).

Tolosa. Bihartik aurrera, Calcuta Ondoan elkarrekin antolatutako erakusketak Errota Haur Liburutegian, 17:00etatik 20:00etara.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Ollarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
 Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

Bihar
 Tolosa. Morant, R. Zabalaretara, 1. 943 673649.
 Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.
 ▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan ez irizien erantzukizunik.



Esnetarako behiak ere izan ziren ikusgai atzokoan. E. EZEIZA



Normalean, mendian ikusten ez ditugun behiak ere bazeuden. E. EZEIZA

Gipuzkoako marrurik onenak

TOLOSA ▶ Gipuzkoako 39. Abelgorri Lehiaketa egin zuten atzo goizean Ferialekuan; parte-hartzaileen artean eskualdeko azientzak izan ziren



Jendearen ahotan ibili zen Azpeitiko zezena, behi arrunt baten ondoan. ESTI EZEIZA

ESTI EZEIZA

Gorriak, pintoak, marroiak, Blondak, Pirenaiak, Frisoiak, Suitzar arrazakoak, Txarolesak, Limousinak... Abelgorriak gustuko dituenentzat paradisuak zen atzo Tolosako Ferialekua. Hala ere, hainbeste aberetatik arreta handiena piztu zuena eta jendearen ahotan gehien ibili zena Azpeititik ekarritako zezena izan zen. Jende guztia aho-zabalik geratzen zen honen tamaina handia ikusita.

Atzoko azokaren aitzakia Gipuzkoako 39. Abelgorri Lehiaketa izan zen. Bertan, eskualdeko hainbat baserriko azientza izan zen lehian Gipuzkoakoekin batera. Honez gain, tratutako aukera ere izan zen. Izan ere, lehiaketatik kanpo, Gipuzkoan jaio eta hazitako bigantxak jarri zituzten salgai. Beraz, bat baino gehiago bueltatu zen etxera abererik gabe.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAREN egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAREN egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

agurren tartea

Kimetz

denda berria

♂ Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

♀ Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62